

2018ko MARTXOAREN 22an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **3 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2018ko martxoaren 22an, iluntzeko zazpietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez da etorri	Naiara Carvajal Larrañaga and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

Osoko bilkura honetan egindako bozketa guztietan kontuan hartu da EH BILDU udal taldeko zinegotzi Naiara Carvajal Larrañaga andreak bere botoa eskuordetzan utzi ziola taldearen bozeramaile Mikel Goenaga jaunari; eta hori, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 25.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

GAI-ZERRENDA

1.- 2018ko OTSAILAREN 22ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2018ko otsailaren 19tik martxoaren 16ra.

Segidan, Alkatezak 2018ko otsailaren 19tik martxoaren 16ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2018ko otsailaren 19tik martxoaren 16ra.

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko otsailaren 19tik martxoaren 16ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- GAI HONEN BERRI JAKITEA

– **0414 Dekretua: 2017ko aurrekontuaren likidazioa eta kontu-hartzaitzaren txostenak**

Ondoren, eta Udalbatzarrari jakinaren gainean jartzeko, hemen jasotako erabakia irakurri du idazkari andreak:

Alkatezaren 0414 Dekretua, 2018ko martxoaren 14koa:

“Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau **ERABAKI DUT:**

Lehena.- Udal honen 2017(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2017-12-31n:		1.094.095,42
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		12.444.135,06
Aurrekontuko zordunak :	5.132.647,07	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	7.461.473,21	
Aplikatu gabeko kobrantzak:	149.985,22	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		3.718.826,77
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	2.574.703,77	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	1.147.414,37	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	3.291,37	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		9.819.403,71
5.- Saldo kobragaitzak:		1.219.489,46
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		321.324,76
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		8.278.589,49

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		1.794.845,89
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-330.646,06
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		1.607.390,38
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		-26.281,99
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):		3.045.308,22

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		1.571.821,67
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		2.151.032,01
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):		3.722.853,68

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

5.- TXOSTENA: 2017ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEAN, AURREKONTUEN EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA.

Ondoren, Udalbatzarrari jakitera eman zaio –eta jakinaren gainean geratu da– Kontu-hartzaitzak 2017ko martxoaren 12an egindako txostena, eta jakinaren gainean geratu da: aurrekontuen egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa, eta Udalak onartu berri duen 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren ondorioz egon beharrekoa zena, hain zuzen.

6.- ZARAUZKO TURISMOAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2018-2021

2017T9880001 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	19	(10 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	–	
Abstentzioak:	2	(2 Irabazi Zarautz)

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Zarautzen turismoak duen indarra eta garrantzia kontuan hartuz, 2017. urtean, Udaleko Turismo, Ekitaldi eta Jaietako Departamentuak ZARAUZKO TURISMOAREN PLAN ESTRATEGIKOA garatzea erabaki zuen, eta Gura Marketin enpresari esleitu zion lana.

Plana garatzeko, hainbat helburu zehaztu ziren:

- Zarauzko turismoaren plan estrategiko operatibo, arin eta praktikoa egitea
- Egungo egoeraren diagnostikoa egitea
- Helburu turistikoak, proiektzioak eta lerro estrategikoak finkatzea
- Apartamentu turistikoen eskaintza kuantifikatzea
- Parte-hartzea bermatzea
- Lerro estrategikoak ekintza zehatzetan finkatzea
- Planaren jarraipena egiteko adierazleak finkatzea

Hori guztia garatu ahal izateko, 4 fase planteatu ziren:

- 1. fasea: gaur egungo egoeraren azterketa
- 2. fasea: merkatuaren azterketa
- 3. fasea: estrategia
- 4. fasea: ekintza plana

Parte-hartze prozesuari dagokionez, hainbat bilera edota lan-saio antolatu dira ondorengo eragileekin:

- Turismo, Ekitaldi eta Jaietako Departamentuko langileak
- Zarauzko Udala: teknikariak eta alderdi politikoak
- Herritarrak
- Alor pribatuko eragileak (Murkil, Zurekin, eta enpresa pribatuak)
- Eskualdeko, Gipuzkoako eta Euskadiko turismoan gako diren agenteak

Elkarrizketa, diagnostiko eta datu guztiak aztertu eta gero, ondorengo dokumentazioa aurkeztu da:

- ZARAUZKO TURISMOAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2018-2021

Dokumentua 4 ataletan banatuta dago:

- Diagnostikoa. Barne eta kanpo analisiak
- Indarguneak eta ahuleziak
- Proposamen estrategikoa
- Ekintza plana

Ikusita Turismo, Ekitaldi eta Jaietako Departamentuak egindako proposamena, eta Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

ERABAKI DU

ZARAUZKO TURISMOAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2018-2021 onartzea.”

7.- PAREKIDETASUN DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA. 2018. URTERAKO OINARRI BEREZIAK

2018FFF0001 espedientea

2017ko martxoaren 30ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak onartu zituen BERDINTASUNERAKO DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK; eta horien testu osoa 2017ko apirilaren 27an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (80. Zk) argitaratu zen.

Orain, Parekidetasun Departamentuak proposamen bat aurkeztu du diru-laguntzak emateko oinarri berezi haiek aldatzeko.

Horiek horrela, eta 2018ko martxoaren 9an egindako bileran Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea PAREKIDETASUN DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEL, erantsitako testuaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarrien aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

Laugarrena.- Berariaz indargabetzea Parekidetasun Departamentutik diru-laguntzak emateko orain arte indarrean zeuden oinarri bereziak, 2017ko apirilaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (80. Zk) argitaratu zirenak, hain zuzen.

Bosgarrena.- 2018. urterako Oinarri Bereziak onartzea eta, deialdiarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

PAREKIDETASUN DEPARTAMENTUA

1. Helburua

Oinarri hauen helburua da Berdintasun Departamentuak era estrukturalean garatzen dituen jarduera, programa eta proiektuen osagarri direnak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeei edo elkarteei norgehiagoka araubidez emango zaizkien diru-laguntzen prozedura arautzea, bikoiztasunak berariaz saihestuz. Adibidez, honako hauek:

- Emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatu eta bultzatzea eta haien arteko desberdintasunak gainditzea.
- Zarauzko emakumeen asoziazionismoa sustatzea eta sare instituzional, sozial eta kulturean haien parte-hartzea indartzea.
- Zarauzko herritarrak eskubide eta aukera berdintasunaren arloan sentsibilizatzea eta kontzientziaztea.
- Emakumeen parte-hartze aktiboa nahiz emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bultzatzeko jarduerak sustatzen dituzten erakundeen sorrera bultzatzea.
- Ikerketa, sentsibilizazio eta dibulgazioko jarduerak egitea, aukera berdintasunaren inguruan eta emakumeen eskubideen sustapen eta defentsaren alorrean.
- Emakumeen aurkako biolentzia prebenitzeko eta desagerrarazteko, biktimen eskubideak defendatzeko eta horien susperraldi pertsonala eta normalizazio soziala bultzatzeko jarduerak egitea. Udalak sustatzen dituen jardueren osagarri izango dira jarduera horiek.
- Erantzukizun pertsonalen, familiarren eta profesionalen arteko kontziliazioaren beharraz sentsibilizatzeko eta kontziliazio-neurriak sustatzeko jarduerak egitea.
- Emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera-berdintasuna bultzatzeko beste jarduera batzuk egitea.

Deskribatutako jarduerak eta/edo ekintzak diruz lagundu ahal izateko, ekintzok ez zaizkie elkarte edo erakunde sustatzailearen kideei bakarrik zuzenduko.

Deialdiaren urteko urtarilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egindako jarduerak lagunduko dira diruz.

2. Onuradunak

Diru-laguntza hauek irabazi-asmorik gabeko elkarteek eskatu ahal izango dituzte; legearen arabera eratuta eta dagozkien erregistroetan inskribatuta egongo dira, beren IFZ izango dute, eta Zarautzen edukiko dute beren egoitza edo ordezkaritza iraunkorra eta beren jarduera Zarauzko udalerrian garatuko dute.

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak ezingo ditu jaso ondorengo zirkunstantziaren batean dagoen erakundeak:

- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru-laguntzenak, 13.2 artikuluan zerrendatutako edozein.
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.
- Sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.
- Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean eta Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

Erakundeak, kasuen arabera, lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezake onuradun izaera lortzeko debekuetan sartuta ez dagoela. Eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien orde, erantzukizunpeko aitortpenarenak aurkez daitezke.

3. Eskaerak

Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira eskaerak: Etkezabala - Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ).

Eskaerak aurkezteko epea urteko deialdian jarriko da.

Parekidetasun Departamentuaren diru-laguntzen urteko deialdian zehazten den eskabide ofizialaren ereduko atal guztiak betez egin beharko dira eskaerak. Deialdian eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da eskaerarekin batera.

Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriek akatsen bat badute edo osatu gabe baldin badaude, erakunde eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsok zuzentzeko, urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68.1 artikuluan jarritakoaren arabera; eta gainera adieraziko zaio, hala egiten ez badu, bere eskaera bertan behera uzten duela pentsatuko dela, lege horrek berak 21 artikuluan jasotakoaren arabera.

4. Elkarte onuradunen betebeharrak:

Hauek dira erakunde onuradunaren betebeharrak, eranskinetan jasotakoez gain:

- Diru-laguntzaren oinarrian dagoen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera izango du.
- Organo emailearen edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatuko du betebeharrak eta baldintzak bete dituela, jarduera egin duela eta bete dituela diru-laguntza emateko edo gozatzeko bete beharreko helburuak.
- Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortuko ditu.
- Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartu eta haiek egiten lagunduko du, indarrean dagoen araudiaren arabera; era berean, kontrol-organoek egindako egiaztapen eta kontrol finantzieroko beste edozein jarduera ere onartu eta egiten lagunduko du; eta aurreko jarduerak egiteko eskatzen zaion informazio guztia emango du.
- Emakidaren ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalarenak egunean dituela egiaztatuko du.

Erakunde eskatzaileak bere eskaeran baimena sartu ahal izango du, organo emaileak ziurtagiri telematikoen bidez lor dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete izanaren egiaztapena; eta kasu horretan ez ditu horieki dagozkien ziurtagiriak ekarri beharko.

Urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2. artikuluan eskubidea aitortzen die herritarrei, lehendik Administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko. Hortaz, Zarauzko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko, tokiko erakundeak berak espedienteari erantsiko zaion ziurtagiri bat egingo du.

- Hartutako fondoak aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, lau urteko epean gordeko ditu, egiaztapen- eta kontrol-jardueren aztergai izan daitezkeelako.
- Organo emaileari jakinaraziko dio, hala badagokio, nazioko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.
- Diru-laguntza emateko kontuan izan den edozein zirkunstantzia objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinaraziko du.
- Jasotako fondoak itzuliko ditu, ordenantza orokorrean aurreikusitako kasuetan.
- Diruz lagundutako jardueraren zabalkunde-ekintzetan, Zarauzko Udalak diruz lagundutakoa dela adierazi beharko da.
- Jarduera egitean, pertsonen oinarriko eskubideak eta indarrean dauden legeak errespetatuko dira.

Euskararen erabilera normalizatzeko eta sustatzeko udal araudiaren arabera, ondorengo irizpideak jartzen dira:

- Aurkeztutako proiektua edo jarduera euskaraz edo elebitan egingo da, bere atal guztietan (bai publikitatean, bai jardueraren garapenean). Elebitan egiten bada, euskarari lehentasuna emango zaio. Irizpide honetatik kanpo geratuko dira, jatorriz, euskaldun ez diren hizlari, mahaikide eta antzerakoak, beren solasgaiak edo jatorriak hala eskatuko balu.
- Euskararen erabilera bereziki zainduko da, espezifikoki haurrentzat, nerabeentzat eta 18 urtetik beherakoentzat antolatutako jardueretan.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudiaren arabera ondorengo baldintzak jartzen dira:

- Elkartearen estatutuetan, kideak onartzeko prozesuetan eta haren funtzionamenduan ezingo dute diskriminaziorik egin sexua, ideologia, jatorri etnikoa, nazionalitatea edo sexu orientazioagatik.
- Programan edo jardueran genero ikuspegia txertatuko dute, kontuan izanda gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla.
- Dokumentazio, publikitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazioa erabiltzea. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexistak saihestea; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatzea.
- Diru-laguntza justifikatzeko memorian sexuaren arabera datuak ematea (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).

- Antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izatea.

5. Prozedura

Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokor arautzailean jarritako prozedura jarraituko da diru-laguntzak emateko.

6. Diruz lagun daitezkeen gastuak

Garatu beharreko jarduerak zuzenean sortzen dituen gastuak izango dira diruz laguntzekoak; esate baterako, dokumentazioa, materialak, prestakuntza, inprenta, zabalkundea, laguntza teknikoa, aretoen alokairua eta abar.

Inolaz ere ez dira diruz lagunduko ez erakunde eskatzailearen ohiko funtzionamenduak dakartzan gastuak (argi, gas, telefono... kontsumoak), ez langile propioen gastuak.

7. Balorazio irizpideak

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

- Proiektua testuinguruan kokatzea eta bere kalitatea: gehienez 50 puntu.
 - Aurreanalisi eta proiektuaren beharren justifikazioa.
 - Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna.
 - Proiektuaren arduradunen eta/edo betetzailen espezializazioa eta/edo esperientzia profesionala berdintasunean.
 - Programa edo jardueraren helburuak eta edukiak egokiak izatea emakumeen eskubideak defendatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko, eta/edo indarkeria sexista ezabatzeke.
- Proiektua berritzailea izatea; sentsibilizazioaren eta/edo prebentzioaren arloan ikuspegi eta/edo estrategia berriak proposatzea: gehienez 10 puntu.
- Proiektuaren kostuaren eta onuradun kopuruaren artean koherentzia izatea: gehienez 10 puntu.
- Zailtasun bereziak dituzten emakumeentzako, ezberdinkeria handiagoko egoeran daudenentzako eta/edo diskriminazio edo bazterkeria egoeran daudenentzako proiektuak izatea (emakume atzerritarrek, zaintzaileak, etxeko langileak, dibertsitate funtzionala dutenak...): gehienez 10 puntu.
- Taldean eta sarean egiten diren proiektuak eta prozesuak izatea, eta esperientzien trukaketa bultzatzea: gehienez 10 puntu.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko edo/eta indarkeria sexista ezabatzeke politiken edo jardueren garapenean egindako ibilbidea, edo/eta Berdintasunerako Udal Kontseiluan aktiboki parte hartzea eta Parekidetasun Departamentuarekin lankidetzan aritzea: gehienez 10 puntu.

8. Diru-laguntzaren zenbatekoa

Diru-laguntza hauen banaketa norgehiagoka araubidez tramitatuko da, deialdi bakoitzean jarriko diren aurrekontu-mugen barruan eta diru-laguntza jasotzeko 50 puntu lortu behar dira gutxienez.

Ezingo da deialdian zehazten dena baino zenbateko handiagoko diru-laguntzarik eman, Legea garatzeko Erregelamenduan aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.

Baldin aurrekontu-kontsignazio eskuragarriarekin eskatutako zenbatekoen zati bat estaltzeko soilik iristen bada, emandako zenbatekoak proportzionalki banatuko dira, baldintza berdinetan, onartutako diru-laguntza guztien artean.

Emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin.

Erakunde onuradunak jakin bezain laster adierazi beharko du diruz lagundutako jarduera finantzatzeko diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide horiek lortu dituela (zenbatekoa ere bai), eta, nolana ere, jasotako fondoei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

Diru-laguntzaren zenbatekoak ezingo du inoiz gainditu, bakarka zein beste administrazio publikoek xede berarekin emandakoekin batera, diruz lagundutako obra edo jardueraren kostua.

9. Zuzkidura eta aurrekontu-partida

Parekidetasun Departamentuaren urteko deialdietan jarriko dira zeintzuk diren diru-laguntzen zuzkidurak eta aurrekontu-partidak.

10. Ebazpena

Zarauzko Udalaren Ordenantza Orokorrean jarritakoaren arabera egingo da ebazpena.

Organo eskudunak:

- Instruktoarea: Parekidetasun Departamentuko teknikaria.
- Balorazio batzordea: kide anitzeko organo bat, Herritarren informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi bateko delegazioei jarraiki.

11. Jakinarazpen-epea

Parekidetasun Departamentuaren urteko deialdian jarritako epean egingo da diru-laguntzaren ebazpenaren jakinarazpena.

12. Diru-laguntzaren erabileraren justifikazioa

Erakunde onuradunak hauek guztiak justifikatu beharko ditu: aurkeztutako proiektuaren % 100, diru-laguntzaren erabilera, jarritako baldintzak bete direla eta diru-laguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla.

Justifikatutako gastuak aurkeztutako proiektuaren % 100 baino txikiagoak badira, portzentaje berean murriztuko da emandako diru-laguntza.

Justifikazio-kontuaren modalitatea erabiliko da, eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

1. Diru-laguntzaren emakidan jarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria bat; hor sartuko dira egindako jarduerak, partaide edo hartzaile kopurua (sexuka berezita) eta lortutako emaitzak.
2. Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko; agiri hauek sartuko dira:
 - a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen ordainketaren erantzukizunpeko adierazpen bat, honakoak adierazita: pertsona edo erakunde hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta, hala badagokio, ordainketa-data. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak ere adieraziko dira.
 - b) Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendako gastuen frogagiriak, edo pareko froga-balioa edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak, diru-laguntza publikoaren xedea bete dela ziurtatu ahal izateko.
 - c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo diru-laguntza guztien erantzukizunpeko adierazpena, elkarrearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Diru-laguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubidea bazter utzi gabe, eta bi orraldietan inprimatuta

3. Azterlan, programa, argitalpen, iragarki-kartel eta laguntza ekonomikoaren ondorioz egindako jardueran sortu den dokumentazio grafikoaren eta idatziaren ale bana.

Parekidetasun Departamentuaren urteko deialdian jarritako epean aurkeztu beharko da diru-laguntzaren erabileraren justifikazioa.

13. Diru-laguntzen ordainketa eta aurrerapenak

Ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira, justifikazioaren aurreko fondo-entrega moduan, diru-laguntzaren berezko jarduerak egiteko beharrezko finantziazio gisa. Aurrerapen horien zenbatekoa urteko deialdian zehaztuko da.

14. Diru-laguntzak itzultzea

Oinarri hauetan edo diru-laguntzaren emakidan jarritako edozein betebeharrak betetzen ez bada, berriz aztertuko da diru-laguntza, eta, horren arabera, emandako diru-laguntza baliogabetu, murriztu edo itzuli beharko da, abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 37 eta 52 artikuluetan eta hurrengoetan aurreikusten duen baldintzetan.

1. Jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira, eta diru-laguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutze-interesak ere ordaindu beharko dira, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta, bereziki, hurrengo kasu hauetan:

- Diru-laguntza eskuratzeko jarrita dauden baldintzak faltsutuz edo eskuratzeko hori galaraziko luketen baldintzak ezkutatu lortu bada diru-laguntza.
- Diru-laguntzaren emakidaren oinarrian dagoen helburua, jarduera, proiektua edo jokabidea osorik edo zati batean ez betetzea.
- Jasotako diru-laguntza justifikatzeko betebeharra ez betetzea, edo justifikazioa behar bezala ez egitea, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera.
- Urteko deialdian xedatutakoaren arabera, zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea.
- Indarrean diren legeetan aurreikusitako egiaztatze eta kontrol finantzieroko jarduerari aurre egitea, aitzakiak edo eragozpenak jartzea edo uko egitea, eta kontabilitateko, erregistroko edo dokumentuen kontserbazioko betebeharrak ez betetzea, baldin jokoera horrek ezinezko egiten badu diru-laguntzaren erabilera egiaztatzea, helburua bete den jakitea, diruz lagundutako jarduerak benetakoak eta erregularak diren ikustea, edo xede berarekin beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek – estatukoek, Europako Batasunakoek edo nazioartekoek – emandako laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabiderik jaso ote den egiaztatzea.
- Administrazioak onuradunei jarritako betebeharrak ez betetzea; edota onuradunek ez betetzea diru-laguntza eman zaienean onartutako konpromisoak, baldin eta horrek zuzeneko eragina izaten badu helburuak lortzeko moduan, jarduera egiteko moduan, edo diru-laguntza emateko oinarrian izan den proiektua egiteko edo jokabidea hartzeko moduan.

2. Emandako laguntzaren edo diru-laguntzaren zenbatekoak –berak bakarrik edo nazioko edo nazioarteko beste administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuk emandakoekin batera– gainditu egiten badu onuradunak aurrera eraman behar duen jardueraren kostua, emakida aldatu egingo da, eta, beharrezkoa bada, itzuli egin beharko da garatutako jardueraren kostuaren gainetik lortutako soberakina.

Bi administrazio publikoren edo gehiagoren diru-laguntzak emanak direnean, eta atal honetan aipatzen den soberakina gertatzen denean, emakida aldatu edo, bestela, dirua itzuliko da, eta hori egiteko erakunde haiek emandako kopuruen banaketa proportzionala aplikatuko da.

3. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira.

15. Dirua itzultzeko betebeharra

1. Aurreko oinarrian azaldutako kasuetan, elkarre onuradunek jasotako diru-kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko dute, gehi diru kopuruoi dagozkien berandutze-interesak. Betebehar horrek ez du zerikusirik izango, hartara iritsiz gero, ezartzen diren zigorrekin.

2. Dirua itzultzeko obligazio subsidiarioa izango dute merkataritza-sozietateetako administratzaileek edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenek, baldin eta a) urratutako obligazioak betetzeko beren ardurako egitekoak egin ez badituzte, b) beraiek hartutako erabakiekin arau-hausteak gerta badaitezke edo c) beren mendekoek hartutako erabakiak onartu badituzte.

3. Halaber, bere jarduera bukatu duten pertsona juridikoen legezko ordezkariak dutenak izango dira, aplikagarri zaizkien legezko edo estatutuetao xedapenen arabera, dirua itzultzeko haien obligazioaren erantzule subsidiarioak.

16. Publizitatea

Diru-laguntzen onuradunak diruz lagundutako edozein programaren, jardueraren, inbertsioaren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz.

Publizitate horretan, Zarauzko Udalaren Parekidetasun Departamentuaren erakunde-irudia txertatu beharko da derrigorrez, eta baita finantzaketa publikoari buruzko hitzak ere txartel, material inprimatu, euskarri elektronikoa edo ikus-entzunezko, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

17. Araudi osagarria

Oinarri espezifiko hauetan aurreikusi ez den orotan beste arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa (azaroaren 18ko EAO); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa (uztailaren 25eko EAO); eta Zarauzko Udalaren diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2008ko uztailaren 22an argitaratutakoa, 140 zk.).

18. Errekurtsoak

Oinarri hauen aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, onartu dituen organo eskudunaren aurrean, edo, zuzenean, inpugnatu ahal izango da bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epeak, bi kasuetan, oinarri hauen argitalpenaren biharamunetik hasita kontatuko dira.

8.- 2018rako AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFAK.

2017UUUU0004 espedientea

2002an, Eusko Jaurlaritzak 2/2000 Legea (turismo ibilgailuetan eskainitako hiriko eta hiri arteko garraioa arautzen duena) garatzen duen Erregelamendua onartu zuen. Lege horrek ezarritakoaren argitara, ARAUBIDE BEREZIKO EREMUA eratu zen Urola Kostan, Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia biltzen dituen. Hori guztia egin da, Lurralde Antolamendu eta Garapenerako Foru Diputatuaren aginduaren bidez (487/05 Foru Agindua, GAO 180 zk., 2005-09-22).

Urola Kostako Udal Elkarteak 2017ko azaroaren 22ko idatziaren bidez (udaletxeko sarrera-erregistroan 14.355 zk.) Udal honi jakinarazi dionez, Taxiaren Eskualdeko Batzordeak erabaki du 2018rako 2017ko taxien tarifei %1,6ko igoera gehitzea; eta, bide batez, Gipuzkoako Taxien Elkarteak aurkeztutako dokumentazioa bidali du, Udalbatza honek onar dezan.

Urola Kostako Taxiaren Eskualdeko Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, batzorde horrek aurkeztutako "Auto-taxiaren idatzia 2018ko tarifei buruz" kontuan izanik, Herritarren informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- 2018. urterako Zarauzko AUTO-TAXI ZERBITZUAREN HIRI-TARIFAK onartzea, ondoren zehazten denaren arabera:

TARIFA	Abiasaria	Ibilitako km-ko	Itxoite-ordua
1*	5,3123 euro	1,1336 euro	21,6501 euro
2**	6,3236 euro	1,8081 euro	35,3395 euro

Gutxieneko tarifiari barne hartuta daude 1,5 Km-ko ibilbidea egitea edo 5 minutuz itxoiten egotea.

(*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, goizeko 07,00etatik gaueko 22,00etara.

(**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, gaueko 22,00etatik goizeko 07,00etara. Era berean, 2. tarifa hau goizeko 07,00etatik gaueko 22,00etara aplikatuko da, igandetan, dagokion autonomia- eta toki-arautegian zehaztutako jaiegunetan eta larunbatetan, eta baita abenduaren 24 eta 31n ere.

Bigarrena.- Akordio hau Urola Kostako Udal Elkarteari bidaltzea, arauzko izapideak bete ditzan.

Hirugarrena.- Udal honek urtero Udalerrian taxibus zerbitzua sustatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzen ditu. Oinarri horietan honako tarifak zehazten dira:

TARIFA	Prezioa
Hirigunearen barruan egindako taxibus zerbitzua	9,00 euro
Hirigunearen kanpoan egindako taxibus zerbitzua	15,00 euro

2018. urterako prezio horiek mantenduko dira.

9.- 2018. URTEAN TAXI-BUS ZERBITZUA BULTZATZEKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK

2018U9920001 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri eta udal taldeek beren jarrera azaldu ondoren, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	14	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	—	
Abstentzioak:	7	(7 EH Bildu)

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

“Udalerrian garraio publikoa sustatzeko proposamen bat da TAXI-BUS ZERBITZUA, herrigunetik kanpo dauden auzoko bizilagunei zerbitzua eman nahi diena, herritar hauei ere mugikortasuna errazteko asmoz. Gaur egungo autobus zerbitzuaren eragina herriko gunera mugatzen da. Inguruan dauden auzo gunetara zerbitzu honekin iristea ekonomikoki bideragarria ez denez, Taxi-bus zerbitzua azken honen osagarri izan nahi du. Baita ere garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasuna duten pertsonen edo mugitzeko urritasuna duten pertsonen laguntzeko.

2008ko uztailaren 16an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak ZARAUZKO UDALAK ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA onartu zuen. Taxi-bus zerbitzua bultzatzeko diru-laguntzen deialdia egin aurretik, berariazko ordenantza onestu behar da oinarri orokorrak eta berariazko oinarriak zehazteko.

Bai Legean, bai Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako diru-laguntzen modalitateen artetik, zuzeneko emakida bidezko prozedura bideratzea dagokio. Prozedura horren arabera, lehendabizi diru-laguntzak emateko baldintzak eta prozedurak arautzeko oinarriak onartu behar dira. Diru-laguntzak banaka emango dira, eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskaerak jaso ahala eta aurrekontu baliabideen mugarekin.

Aurrekoa ikusita, eta Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Zarauzko hirigunetik kanpo geratzen diren auzoetako bizilagunentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat 2018. urtean TAXI-BUS ZERBITZUA bultzatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzea.

Bigarrena.- 10.000 euroko gastu-konpromisoa baimentzea, diru-laguntza deialdiari aurre egiteko, ondoko partidaren kontura: . 1.0901.471.03.441.20.2018

Hirugarrena.- Oinarriak, deialdiarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

UDALERRIAN TAXI-BUS ZERBITZUA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK

1. Oinarria. Diru-laguntzen xedea

1.1. Udalerrri barruko garraio publikoa sustatzeko ekintza bat da, eta helburua du herrigunetik kanpo dauden auzoei garraio zerbitzua ematea eta bere bizilagunei mugikortasuna erraztea.

Zerbitzua erabili ahal izango dute eremu hauetako batean errolatuta dauden herritarrek: Zarauzko Udalerriko lurzoru ez urbanizagarria kalifikazioa duten eremuetan bizi direnek, eta Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko eremu hauetan errolatuta dauden herritarrek ere bai: 19 (Talaimeendi), 24 (Errotaberri), 25 (Astierreka), 26 (Astazubi) eta 27 (Errotazar), Horretarako bi baldintza hauek bete beharko dira: batetik, autobus geltokia beren etxebizitzetatik 500 metro baino gehiagora egotea eta, bestetik, zerbitzuren maiztasuna 70 minututik gorakoa izatea.

1.2. Herriko autobusak egiten duen ibilbidearen barruan garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasuna duten pertsonen zerbitzu hau erabiltzeko aukera emango zaie, autobus zerbitzuak ezin dituztenean bete bere mugikortasun beharrak. Kontzeptu horretan sartuko dira, baita ere, garraio publikoak erabiltzeko zailtasunak daudela ebazteko baremoaren barruan, 1971/1999 Errege Dekretuaren 3. eranskineko A), B) eta C) letretan sartuta daudenak (abenduarien 23koa, ezgaitasun gradua aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoa).

1.3. Lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 7:00etatik 22:00etara bitartean egindako garraio zerbitzuetara mugatuko dira diru-laguntza horiek.

Zerbitzua eskatzeko ordutegia goizeko 9:00etatik arratsaldeko 18:00etara izango da, eta deia, ahal dela, zerbitzua erabili aurreko egunean egingo da. Telefonoa: 943-13.19.52

1.4. Zerbitzuaren hasiera eta bukaera erabiltzaileak nahi duena izango da, betiere udalerrri barruan egiten bada, eta zerbitzu horrek ez du derrigorrez autobus-geltokian hasi edo bukatu beharrik izango.

2. Oinarria. Onuradunen betebeharrak.

Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak 11. artikuluan xedatutakoaz gain (diru-laguntza baten onuradun izateko betekizun eta debeku orokorrak), laguntza hauen onuradun izango dira Zarauzko Udaleko taxi-lizentzia duten pertsonak.

Ezgaitasuna duten pertsonentzat ibilgailu egokituak dituzten taxi-gidariak ere onuradun izan ahalko dira, baldin eta zerbitzua Zarauzko Udalerriaren barruan ematen baldin badute, eta oinarri hauetan jasotako baldintzetan. Aukera hori zabalduko da soil-soilik Zarauzko taxi-gidariak zerbitzu hori ematerik ez dutenean.

3. Oinarria. Eskaerak aurkezteko tokia eta modua

3.1. Diru-laguntzen eskaera Udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan aurkeztuko da. Eskaerarekin batera, deialdian bertan zehaztuko den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3.2. Eskaeran edo eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan identifikazio-datuak falta badira, akatsik egin bada edo osatu gabe badago, orduan, eskatzaileari eskatuko zaio dagoen akats hori 10 eguneko epean zuzen dezala, urriaren 1eko 39/2015 Legeak— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak— 68.1. artikuluan xedatutakoaren arabera. Eskatzaileak akatsa zuzentzen ez badu, eskaeran atzera egindakotzat joko da, horretarako

ebazpena aipatutako legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan eman ondoren.

4. Oinarria. Diru-laguntzak emateko prozedura

4.1. Diru-laguntza izendunen bitartez emango dira diru-laguntzak.

4.2. Udalak bonuak banatuko ditu laguntza hauek errazago eman ahal izateko.

5. Oinarria. Finantza-baliabideak.

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzetarako finantza-baliabideak ondorengo aurrekontu-partidatik ordainduko dira, esleitutako diru-kopurua amaitu arte: 1. 0901.471.03.441.20 2018.

6. Oinarria. Diru-laguntzen zenbatekoa eta balorazio irizpideak

- Diru-laguntzak emateko bonu sistema erabiliko da. Interesdunek eskaera egingo dute deialdian jasotzen den baldintzetan, eta 10 bidaia egiteko bonu bat jasoko dute dohainik Tiket bakoitzak bi zati izango ditu. Zerbitzuaren ondoren, taxi-gidariak zati bat jasoko du eta bidaiariak gorde egin beharko du beste zatia.
- Taxi-zerbitzua ematerakoan, erabiltzaileak egiaztagiri bat emango dio gidariari eta egindako ibilbidea ordaindu egingo du (=autobusaren tarifa arruntaren balioa).
- Udalerriaren barruan egindako taxi-zerbitzua 9,00 euroko prezioan aurreikusi da eta udalerritik kanpo egindakoa 15,00 euroko prezioan. Horietatik 2,00 euro bere gain hartuko ditu taxi-gidariak.
- Udalak dagokion kopurua ordainduko dio taxi-zerbitzua eman duenari, emandako zerbitzuen justifikazioa aurkezten duenean: Zerbitzu bakoitzarentzat aurreikusitako prezioari kendu egingo zaio erabiltzaileak ordaindutako bidaiaren prezioa (=autobusaren tarifa arrunta) eta taxi-gidariak bere gain hartutako kopurua.

7. Oinarria. Bonuak eskuratzeko prozedura

- Bonu eskatzailea herriko autobusak egiten dituen ibilbideetatik kanpo geratzen diren eremuetan erroldatua egon beharko da (1.1 atalean zehaztutakoaren arabera).
- Ezgaitasuna edo mugikortasun urria duten pertsonak bonuak eskatu ahal izango dituzte, Zarautzen erroldatuak badaude eta 1.2 atalean adierazitako ezgaitasun maila badute.
- Herritar bakoitzak gehienez ere 14 bonu eskatu ahal izango ditu eta ezingo da bonurik eskatu aurreko bonua eskatu zenetik astebete pasatu arte.
- Mugikortasun Departamentuak begiratu egin beharko du ea bonu eskatzaileak bete egiten ote dituen bonua emateko oinarri hauetan jasotako baldintzak.
- Baldintzak bete egiten dituela egiaztatutakoan, interesdunak Herritarren Arreta Zerbitzuan jasoko du bonua.

8. Oinarria. Diru-laguntzen ebazpenak

Diru-laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak emateko eskumena Alkatetzak izango du.

9. Oinarria. Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak

Diru-laguntzaren bat jasotzen duen edozein onuradunek bete egin beharko ditu Zarauzko Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorreko 20. artikuluan ezarritako betebeharrak eta oinarri hauetan jasotakoak.

10. Oinarria. Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin, baldin jasotako guztiarekin diruz lagundutako jarduketaren kostua gainditzen ez bada, eta bildutako beste diru-laguntzen oinarri arautzaileek horri buruz agindu dezaketinari kalterik egin gabe.

11. Oinarria. Diru-laguntzak ordaintzea

11.1. Garraio zerbitzua eman duen pertsonak eskaera eta dokumentazio osagarria aurkezten dituenean ordainduko da diru-laguntza.

11.2. Eskaerak hilerok aurkeztuko dira, zerbitzua eman eta hurrengo hilabeteko lehenengo astean. Salbuespenez, 2018ko bonuak aldatzeko azken eguna 2019ko urtarrilaren 31 izango da.

12. Oinarria. Baldintzak ez betetzea eta diru-laguntza itzultzea.

Oinarri hauetan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badu pertsona onuradunak, diru-laguntza jasotzeko eskubidea erabat edo hein batean galdu duela adieraziko da, eta gainera jasotako diru kopurua

osorik edo zati batean itzuli beharko du, baita diru kopuruoi dagozkien berandutze interesak ere. Diru-laguntzak emateko eskumena duen organoak hartuko du horri buruzko erabakia.

13. Oinarria. Araubide juridikoa

Diru-laguntza horiek oinarri arautzaile hauek arautuko dituzte: Zarauzko Udaleko Diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokorra (GAOn 2008ko uztailaren 22an argitaratu zena); azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa; eta horren garapeneko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.

10.- ZARAUZKO ELKARTEEN UDAL ERREGISTROAN INSKRIBATZEA ETA UDAL INTERESEKO ADIERAZPENEA

– ZarautzOn

2017 I 161 0002 espedientea

Juan Mari Iraola Aguirrezabal jaunak eskatu du “ZARAUTZON” ONGIZATEAREN SUSTAPENERAKO ELKARTEA / ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL BIENESTAR elkartearen Elkartearen Udal Erregistroan inskribatzea. Horretarako behar den dokumentazio guztia aurkeztu du.

Gainera, udal intereseko elkartearen adierazpena ere eskatu du, eta horretarako beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu du. Bestek beste, zerbitzu eta jardueren memoria ere sartu du, udal interesekoa dela frogatzeko.

Dagokion departamentuak txostena egin du. Bertan egiaztatu du jarritako betebeharrak betetzen dituela eta udal intereseko elkartetzat hartzeko baldintza zehatzak ere betetzen dituela.

Zarauzko Elkartearen Udal Erregistroaren Erregelamendu Arautzailean aurreikusitakoarekin bat etorritik (2017ko urtarrilaren 12ko GAO, 8 zk.) eta Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- “ZARAUTZON” ONGIZATEAREN SUSTAPENERAKO ELKARTEA / ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL BIENESTAR elkartearen Elkartearen Udal Erregistroan inskribatzea. Datu hauekin emango zaio alta elkarteari, eta akordio honen egunetik aurrera izango ditu ondorio guztiak:

Presidentea:	Juan Mari Iraola Aguirrezabal	NAN	15138475J
Idazkaria:	Pedro Lizarriturri	NAN	15338794W
Diruzaina:	Juan Carlos Berraondo	NAN	15139310C
Helbide soziala:	Nagusia, 10-3. 20800 Zarautz		

Bigarrena.- Elkarteak udal interesekoa dela adieraztea, Zarauzko Elkartearen Udala Erregistroaren Erregelamendu Arautzailearen bederatzigarren artikuluan aurreikusitako ondorio guztiekin.

Elkarteak modu inraunkorrean bete beharko ditu udal interesekoa iizendatua izateko aintzakotzat hartu diren baldintzak.

Bestela, erregelamenduaren zazpigarren atalean dioenari jarraiki, jarduera Udalarekiko lankidetzaren aurkakotzat hartuko da, eta erregistroko inskripzioa ezeztatu ahal izango da.

Hirugarrena.- Erakunde interesdunari ebazpen hau jakinaraztea. Erregistroan inskribatutako datuak helaraziko zaizkio, eta adieraziko zaio datu horietan edozein aldaketa gertatzen bada Udalarari derrigorrez jakinarazi behar dizkiola, aldaketa egin eta hurrengo hilabetean.

Une honetan **kontu-hartzaile** andrea bilkuratik joan da.

11.- EH-BILDU ETA IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Zarauzko jubilatutako eta pentsiodunen Plataformaren idatzia aurkeztuz

2018O0010004 espedientea

Aurkeztutako proposamena aztertu baino lehen, gaueko zortziak eta laurden direnean, batzarburu jaunak bilkura eten egin du: bilkura hasi aurretik Plataformaren ordezkariak esandakoa entzun eta gero, bere taldeko kideek elkarrekin proposamena azter dezaten; eta, hamabost minutura, zortzi eta erdietan, ekin diote berriro bilkurari.

Segidan, idazkari andreak irakurri egin du EH BILDU eta IRABAZI ZARAUTZ udal taldeek elkarrekin aurkeztutako proposamena, Zarauzko Jubilatutako eta Pentsionisten Plataformaren idatzia bere egitekoa dena, hain zuzen. Hona hemen zer dioen:

Zarauzko Jubilatutako eta Pentsionisten Plataformaren proposamena

ZARAUTZ UDALBATZARI AURKEZTEKO MOZIOA ALDERDI POLITIKOAK DEITUZ, AHALIK ETA BIZKORREN ONARTU DEZATEN.

MOZIOA:

Zarauzko Jubilatutako eta Pentsionisten Plataformak ESKATZEN DU MOZIO hau azter dadila Zarauzko Udalaren Udalbatzan eta deitzen ditugu Udal taldeak onartu dezatela.

Pentsiodunok aspaldi nabaritzen ari gara gure pentsioen eros ahalmena galtzen ari dela. Estatuko gobernuek egin dituzten ondoz ondoko pentsioen erreformek, PP-k nahiz PSOE-k, kalte handia egin digute. Gu gara, pentsiodunok, murrizketak nozitzen ari garenak (hilabete bukaerara iristea kostatzen zaigu, eta batzuetan, ez dezakegu berogailua piztu); bien bitartean, badago dirua bankarentzat, elektrikentzat, enpresarientzat,...

Pentsiodun gehienok txirotasun mugatik azpitik kobratzen dugu, eta gero eta zailagoa egiten zaigu duintasunez bizitzea gure bizitzen azken urteotan, urte luzez lan egin eta kotizatu ondoren. Dirudienez, horrek ez omen die axola gure politikariei, biztanleriaren %25a, pentsiodunok alegia, bizi dugun egoera arintzeko neurririk ez dituztelako hartzen.

Ez da aurreneko aldia eskatzen duguna aintzakotzat har gaitzezela, duintasunez bizitzen lagako diguten gutxieneko pentsioak berma dakizkigula. Honen harira, gogoan izan behar dugu pentsiorik kaskarrenak dituzten gehien-gehienak, onartezina den zigor bikoitza jasaten duten emakumeak direla.

Honengatik guztiarengatik, eta uste dugunez BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela, lehen adierazi dugu beste gaietarako badela dirua, UDAL HONI ESKATZEN DIOGU:

1.- Arbuia dezala pentsioen %0,25eko igoera ziztrina eta erreklamatu dezala haien eros ahalmenari eutsi behar zaiola.

2.- 1.080 €-tako gutxiengo pentsioa ezartzea eska dezala, txirotasun mugatik irten gaitezen, Euskal Herriari dagokion eran eta Europako Gutun Sozialak ezarria betez (batez besteko soldata haztatuaren %60a), eta hori gauzagarria izango ez den bitartean, eska diezaiola Gasteizeko Jaurlaritzari, aipatu kopurua pentsiodun guztiek hileroko eskura dezaten, behar den osagarria ezarri behar dela.

3.- Ezar dadila Euskal Herriko Babes eta Gizarte Segurantzaren Sistema, gero eta pertsona adindun gehiagoren pentsio publikoak eta behar dituzten zaintzak berma daitezen.

4.- Datorren urtean, 2019. urtean, ezarri beharko litzatekeen jasagarritasun faktorearen ezarpena arbuia dadila, zeinak gure pentsioei murrizketa berria eta handia ekarriko dien.

5.- Bidal diezazkiela Estatuaren Gobernuari eta Gasteizeko Jaurlaritzari Udala honek onartu dituen erabakiak.

Gaia eztabaidatu ostean, batzarburuak horrela aginduta, proposamena bozkatu dute. Honako hau izan da emaitza:

Aldeko botoak:	11	(7 EH Bildu, 2 PSE-EE, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	10	(10 EAJ-PNV)
Abstentzioak:	—	

Beraz, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU transkribatutako mozioa onartzea.

12.- EAJ-PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA

– Pentsio duinen aldeko mozioa

2018O0010005 espedientea

Hurrena, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute. Hona hemen testua:

Azken hamarkadan, estatuko pentsio sistemak hainbat eraso jasan beharra izan ditu. Aipatu beharra dago 2011-2015 agintaldia benetan beltza izan dela Partido Popularreko Estatuko Gobernuak egindako hainbat lege aldaketa medio (5/2013 aurre jubilazioa arautzen duena, Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Jasangarritasun Faktorea eta Errebalorizazio Indizea arautzen dituen 23/2013 Legeak, ...) Lege aldaketaz gain, hainbat gertakari ekonomiko eta politikok (Bankuen erreskatea, korrupzioa, enpleguaren prekarietatea, ...) eta azkenik, Fatima Bañez ministroaren gutuna, pentsioen % 0,25 iragarritz pentsionista, jubilatu eta herritarrak kalera atera gaituzte.

Egoera honen aurrean, berriro ere nabarmendu da urteetan zehar Estatuko gobernu desberdinak noraezean dabiltzala gai honetan. Urteak dira, besteak beste, biztanlegoaren piramidearen inbertsioa errealitate bat bilakatuko zela hamarkada gutxitan, XX gizaldiko 60 hamarkadako "baby boom"ean jaiotakoen jubilazioa gainean genuela. Guzti honen aurrean, Estatuak ez dio errotik eutsi arazoari eta epe motzean oinarritutako neurri elektoralistek gidatu dute Estatuko gobernu desberdinen politika.

Guztia horrela, berriro ere, pentsionistak kalean direlarik, ezin dugu politikariok, akats berdinean erori. Hausnarketa sakona behar zuen eta behar duen gaia dugu. Ongizatearen oinarritzko eskubide baten aurrean, zuhurtziaz eta ausardiaz jokatu beharra dugu, Europan aitzindari diren herrien bidetik, oraina bermatu eta etorkizunari ere bidea egiteko.

Euskal Gizarteak, behin baino gehiagotan azaldu du bere balioa erronka zailei aurre egiteko. Ezin ahaztu, besteak beste, orain egun gutxi joan zaigun Jose Ignacio Arrieta, Eusko Jaurlaritzako sailburu izana; gaur egun DBE/RGI bezala ezagutzen dugunaren oinarriak ezarri zituena. Garaiak gogorak ziren, krisia eta industria birmoldaketa garrantz baten murgilduta.

Orduan ere, gizarte solidaritatean oinarrituz, Eusko Jaurlaritza, Gernikako Estatutua eta Kontzertu Ekonomikoa giltzarri izan ziren.

Gaur ere, pentsio duin batzuek bermatu nahi baditugu, oinarritzkoa da tresna politiko eta ekonomiko propioak izatea, eta oinarritzkoa da gaur eguneko eta etorkizuneko euskal pentsionistek, pentsio duinak izan nahi baditugu, Euskal Pentsio Sistemaren aldarrikapena egitea.

Guzti honegatik, Zarauzko Udalak:

1. Estatuko Gobernuari, gaur egun pentsiodun direnei, % 0,25 igoera xixtrina ahalbidetzen duen legea indargabetu dezala eta pentsioen errebisioa KPIra berriro lotzea eskatzen diogu.
2. Estatuko Gobernuari, Segurantza Pentsio Sistemaren Jasangarritasun faktorea eta errebalorazio indizea arautzen duen 23/2013 legea indargabetu dezala eskatzen diogu.
3. Eusko Jaurlaritzari, pentsio duin baten oinarrietako bat soldata duinak direlarik, enplegu finkoa eta lan baldintza eta soldata duinak ahalbidetzen dituen industria politikaren bidetik jarraitzea eskatzen diogu.
4. Pentsiodun diren eta izango direnei, pentsio publiko duin bat bermatu ahal izango duen Euskal Pentsio sistema aldarrikatzen du.

Udal taldeek beren iritzia eman ondoren, proposamena bozkatzeari ekin diote. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	—	

Horrenbestez, Udalbatzarrak ERABAKI DU, botoen gehiengoarekin, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa onartzea.

13.- ESKARI-GALDERAK

Ez du inork hitz egin.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, gaueko hamarrak laurden gutxitan; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.